



4 UDALA

Enara Fernandez eta Iraitz Etxarri omenaldi beroa

Enara Fernandez eta Iraitz Etxarri herritarrei omenaldia egin zitzaion udal batzar aretoan aurten lortutako kirol emaitza bikainengatik. Enarak Espainiako txapelketa eskuratu du eski modalitate ezberdinetan, jubencil mailan lehiatutakoa gainera. Itsuentzako kirol federazioak antolatutako hiru zirkuitoetan lehen postuak eskuratu ditu gainera. Omenaldian lagun eta senideen berotasunaz gain, kirolariak udal ordezkarien babesa eta aitortza jaso zuten.



Gorka Lizarraga zinegotzia, Behemendiko Mikel Zendoia eta "Landare azokak" elkarteko Joseba Segurola Urtinea Lorategian egin zen prentsurrekoan.

5 AISIA

Haur eta gazteen udarako egitasmoen aurkezpena

Ttakunek Udalaren babesarekin haur eta gazteentzat antolatzen dituen udako egitasmoen aurkezpena egin zen Okendo plazan. Honetan Boris Nogales Udaleko Euskara batzorde burua, Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria eta Pili Bermejo eta Jon Pello Artetxe Ttakuneko hezitzaileek hartu zuten hitza. Adin guztiei zuzendutako aisialdi eskaintza zabala iragarri zuten. Udako txokorak, udalekuak eta kanpaldi ibiltaria DBHkoentzat daude aukeran.



I. Lore eta landare azoka Okendon

Bihar goizean Okendo plaza udaberriko lore eta zuhaixkez beteko da

Zuhaixkak, landare aromatikoak, kaktusak, bonsaiak... denetarik izango da bihar Okendo plazan egingo den Lasarte-Oriako Lore eta Landare azoka berezian. Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak antolatutako ekintzak herria bizirik mantendu eta bertako produktuen salmentan bide berriak sustatzea du helburu.

Urtinea Lorategian aurkeztu zen asteartean Okendo plazan bihar izango den Lasarte-Oriako I. Lore eta Landare azoka. Bertan izan ziren Behemendiko Mikel Zendoia, Landare azoka elkarteko Joseba Segurola eta Gorka Lizarraga Lasarte-Oriako Udaleko Merkataritza ataleko arduraduna.

Gorka Lizarraga zinegotziak azaldu zuenez, "merkatariekin egin ditugun parte-hartze bileratan proposatutako ideietako bat da hau.

Honen bitartez herriko erdigunea larunbata goizetan biziberritu nahi da, herritarrek herrian geratu eta erosketak bertan egitea sustatu nahi da."

Behemendi elkarteko ordezkariaren hitzetan, beste helburu bat ere badu, "eremuko ekoizleen produktuen salmenta bideak sustatzea".

Okendo lorez betea

Aurkezpenean adierazi zuten, herrian egingo den Landare eta Lore azoka berri hau

goizeko 9:00etan hasiko da eta 14:00ak arte egongo da irekia.

Era honetara, Udaberriko lore zein landare mota ezberdinen erakustoki paregabea bilakatuko da herriko plaza: garaiko landareak, barnerako eta kanporako landareak, zuhaixkak, jateko diren fruitu txikien zuhaixka ekologikoak, landare aromatikoak eta sukaldaritzarako landareak, kaktusak eta landare zukuatsuak, bonsaiak...

Landare azokak elkartea

Gipuzkoako lore eta landare ekoizle-profesional nagusiak bilduko dira gurean, "Landare Azokak" Elkartea osatzen duten ekoizleetako zazpi: Usurbilgo Urtinea Lorategia eta Aramburu haztegia, Oiarzungo Zunoir, Irungo Bonsai,

Errenteriako Islaya kaktusak, Zarauzko Lurberry eta Tafallaoko El Montañes.

Elkarteko kidea den Joseba Segurolak azaldu zuenez, azoketan elkarteko kideekin landare eta lore esparru guztiak betetzen saiatzen dira.

Haurrentzako ekintzak

Honetaz gain, goiza osoan zehar musika izango dela eta etxeko txikiak aspertzeko aukerarik izango ez dutela jakin arazi zuen Mikel Zendoia Behemendiko kideak, "haurrentzako landare tailerak eta jolasak izango dira".

Era honetara, "Landare Azokak" elkarteko Segurolak eta Lasarte-Oriako Udalak herritarrek animatu nahi ditu bihar goizean Okendo plaza hurbildu eta azoka berezi honetaz gozatzera.

Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

ARKUPE TABERNAren LEHEN URTEURRENA
eta hau ospatzeko,
bezeroentzako
IGANDEAN PAELLA ERRALDOIA
12:30etatik aurrera.
Sorpresa eta opari bereziak ere, izango dira

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria

Arkupe
facebook.com/ArkupeTaberna

Neure kabuz



Mailu Arruti
Bermeo

Zer eramango zenuke inor bizi ez den irla batera?

Erantzun ohizkoenak.: Liburu on bat.

Praktikoena: metxero bat. Aitor ezina: neska/mutil katxarro bat.

Aste honetan antzekotasun handia duten hizketaldi bat baino gehiago entzun ditut Bermeoko sute izugarria eta gero.

Zer aterako zenuke zure etxetik gauze, lotan zaudela, larritasunez etxeko atea joko balute eta etxea sutan dagoela oihukatu?

Erantzun xelegebre bat baino gehiago entzun dut.

Lehenengo haurrak. Arrazoizkoa. Lehenengo neroni. Arrazoizkoa hau ere.

Lehenengo haurrak, etxekoak, neroni, katua, txoria, argazkiak, ordenagailua, poltsa, dirua, libreta, famili liburua, etxeko eskriturak, ase-guru poliza,

Haur batek amari: lehenengo futbolero kromoen kolezioa!

Arrazoiz jokatu bagenu, esnaera traumatiko horretan zer da aterako genukeena? Noski berreskuratu ezin dena. Argazki zaharrak, dirua, beste guztia koptatu daiteke.

Baina herio horretan ez dugu arrazoiz jokutzen. Inork ez dakigu nola erreakzionatuko genukeen. Ez ahal litzake momentu horretan agerian geratuko gure benetako izaera?

Lehenengo momentuan, bizilagun guztiak eskaratzera jaitzi eta izugarriko gertutasuna sentituko genuke denok ondo gaudela ikustean (nahiz eta egunerokotasunean diferentzi bat baino gehiago eduki) eta bigarren momentuan elkarri begira jarriko ginatke. Hara hau hanka-hutsiki jaitzi da. Eta beste hau beti hain panpoxa, piura horrekin lo egiten al du? Eta beste hau zer, beti bezala poltsari lotuta.

Larritasun hauetan asko ikasten dela iruditzen zait. Gure sen primarioak agerian uzten ditugu. 83ko uholdeak etorri zaizkit gogora. Ikargarriko triskantzak eta ikargarriko laguntasuna.

Zorion agurrak



Bixente

Kaixo pilulin, segi hain bizkorra zure gauze-kin. Zorionak eta ondo pasa zure familia.



Unax eta Ander

Zorionak bikote. Muxu handi bat familiaren partetik eta ondo pasa!!



Aintzane

Zorionak zure bederatzigarren urtebetetzean eta muxu handi bat etxeko partetik.



Enara

Zorionak eta muxu asko guraso, ahizpa eta Maiteeren partetik!!



Eder

Zorionak Lasarteko lagun eta batez ere Anartzten partetik!



Maialen

Zorionak 'maribruji'. Nola pasatzen den denbora!!! Ondo pasa eta muxu potoloak familiaren partetik



Lur

Zorionak printzesa, neskatxa ederra egiten ari zara!!! 9 mila txoko-muxu ta segi holako politta!!!



Karlos eta Joserra

Zorionak "Bollito" eta txintxo portatu! Muxu handi bat Jalguneko lagun partetik.



Unai

Zorionak Pirata Txiki! Oso ondo pasa izana espero dugu. Maite zaitugun partetik!!!



Malalen

Zorionak Maialen zure bostgarren urtebetetzean, familiaren partetik. Ondo pasa eta muxu pila!

Azoka txikia

Eskaintza immobiliaroak

- Bi gela alokatzen ditut Sasoeta Auzoan. 270 euro dena barne. Harremanetarako zenbakia, 650 225 553.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- Juan XXIII plazan garaje marra bat alokatzen da. 55 euro. Harremanetarako, 616 816 814.

Salerosketak

- Opel Astra salgai 7 urte dauzka eta egoera onean dago. Interesa duenak deitu 637 733 447 edo 943 574 327

Lan-eskariak

- Emakumezko arduratsua lan egingo luke kanpotik joanda edo etxean bertan geratuta. 646 200 905
- Esperientziadun emakumeak lan egingo luke agureak zein umeak zaintzen, interna edo

- externa moduan, orduka... 638372872
- Aroztegi, eraikuntzan edo baserrietan lan egiteko prest nago. Paperak ditut. Harremanetarako 656 333 322 edo 943 507 952 zenbakira deitu.
- Emakumea eskaintzen da orduka pertsona edadetuak zaintzeko edo kamarera bezala lan egiteko. Harremanetarako, 696 279 628.
- Gizona eskaintzen da baserrian, sukaldean edo kamarero bezala lan egiteko. Harremanetarako, 699 877 014.
- Heziketa Bereziko diplomatu haurrak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest. LH eta DBHko ikasleei. Ikasturtean zehar zein udan. Esperientziaduna. Amaia, 647 142 701.
- Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona adinduak edo haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka, zein interna moduan. Harremanetarako, 636 467 722.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ane Goicoechea Gutierrez, apirilaren 12a.
- Izan Castillo Baltodano, apirilaren 9a.
- Claudia Elicechea Amas, apirilaren 5a.
- Kaiet Elicechea Amas, apirilaren 5a.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 19 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 20 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 21 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 22 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 23 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 24 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 25 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Ostirala, 26 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 27 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 28 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Erzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroledegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I, Maider Azurmendi, Jon Altuna E
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

X. BALIOETAN HEZI JARDUNALDIAK

Heriotza eta dolua aztergai

Bidegin elkarteko Izaskun Andonegi dator astelehen eta asteartean Mila Arce erizainak haur eta gazteen kasua jorratuko du asteazkenean

Danok Kide Guraso Elkar-teak antolatzen duen Balloetan Hezi Jardunaldien aurten goiza, "Arreta doluan direnel" izango da. Hiru hitzalditan bizi-tzaren azken unean direnei ematen zaizen laguntza jorratuko da. Astelehen, astearte eta asteazkenean arratsaldeko 19:30ean emango dituzte hitzaldiak Manuel Lekuona kultur-etxean Izaskun Andonegi eta Mila Arce erizainek.



Bidegin laguntza erakundearen sortzailea da Izaskun Andonegi.

GOIENA

Danok Kide Guraso elkarteak heriotzari eskaini dio aurten hamargarren aldiz antolatuko duen Balloetan Hezi Jardunaldia. Elkarteko antolatzaileen iritziz, "maite den norbait galteza bizitzako gertaera oso latza da" baina denok "salbuespenik gabe" bizi beharko duguna. "Prozesu horretan, beharrezko dugu gure oinazeari hitzak jartzea, hitzik gabeko oinazera marmar ari delako barru-barruan eta urratu egiten duelako bihotza" adierazi dute antolatzaileek egitarauarekin batera argitaratu duten berripaperean.

Xabier Andonegi Jardunaldien koordinatzaileak esan digunez, herritarren interesari erantzunez antolatu dute aurten doluaren inguruan: "Donostian talde batek lan

handia egin du arlo honetan eta esperientzia hori ekarriko dugu Lasarte-Oriara".

Bidegin proiektua

Heriotzaren gaia jorratzeko gaia ondo ezagutzen duen Izaskun Andonegi erizaina gonbidatu dute Danok Kidekoek. Azken momentuan aringarriak ematen lan egiten duen erizain honek sortu zuen Bidegin elkarte, gaitasun larriak dituztenei edota senideren bat galdu dutenei doluan laguntzeko.

Astelehenean arratsaldeko 19:30ean, "Bidegin, doluan laguntza. Gipuzkoarrei ekar-

penak" gaia jorratuko du Izaskun Andonegi. Hitzaldi hau emateko, bere esperientzia kontatuko duen Ainara Elizetxearen laguntza izango du Bidegineko ordezkariak.

Hurrengo egunean, asteartean, "Bizitzaren azkenean lagun" hitzaldia emango du Izaskun Andonegi.

Asteazkenean Mila Arce haurrean psikiatri erizainak haur eta gaztetxoek kasua jorratuko du: "hiltze prozesuan nola hitz egin eta lagundu haur eta nerabeei" izenburua duen hitzaldia emango du esperientzia handia duen erizain horrek.

Sortu-ko Herri Kontseilua aurkeztu da

Sortu-ko herri kontseilua Saurkezu zen asteazkenean Villa Mirentxun. Bertan egin zuten agerraldia "erakunde berri honen haziak bertan erein baikenituen, bertan bildutakoek ureztatuko baitute egunero indarberrituz eta oinarri hauek hartuko ditugulako kontutan aurrerantzean."

Ezker abertzaleak urte luzeak ilegalizazio egoeran eman dituela gogoratu zuten eta "ez dira bide luze honetan arazoak eta kontraesanak falta izan, ezta aurrerantzean falta izango ere, baina eztabaidari eta lan militantei esker hasitako bidean uste osoa dugu".

Herri kontseilua

Lasarte-Oriako kontseilua atal ezberdinetan banatuta honako



Argazkian Ibai Diez eta Unai Iparragirre falta dira.

herriarrek osatzen dutela eman zuten jakitera: Masa borroka atalaren baitan, herri antolakuntza ezberdinak sustatzea helburu, Kristina Alvarez eta Txanpi Bastarrika arituko dira; Sorturen edukien zabalkuntzan Gorka Lizarraga, Kristina Bernal eta Unai Altuna; borroka instituzionalean Leire Elizegi, Ibai Diez,

Tomas Arrizabalaga eta Joxe Goikoetxea. Gazteriri dagokionez, Iker Ortega eta Uxune Iparragirre. Langile mugimenduan Ander Goenaga, antolakuntzan Aritz Bergara, Fleki Izagirre eta Mikel Eskisabel eta komunikazio alorrean, Karlos Martin, Unai Iparragirre eta Haritz Iparragirre jardungo dira.

BIYAK BAT

Tarazona-Castejon irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak jakin arazten du, hilabete honetan Tarazona eta Castejon aldera egingo duten irteerarako lehenengo autobusa bete dela eta bigarren autobus bat antolatzeko aukera dutela.

Irteera honen prezioa 34 eurotako da bazkideentzat eta bazkide ez direnek, berriz, 38 euro ordaindu behar dituzte. Izena ematea apirilaren 22an, astelehenan amaituko da.

Bide batez, maiatzaren 26tik ekainaren 4ra San Fernandora, Cadizera egingo duten bidairako lekuak daudela gogora arazten dute elkarteko kideek.

Bidai hauetako izena ematea Biyak Bat elkarteko bulegoan egin daiteke astelehenean ostiralera 10:30 eta 12:30ak bitartean. Informazio gehiago eskuratzeko ere bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

IKASTAROA

Gorputz jarreraren heziketa ikastaroa

Ttakun Kultur elkarteak Gorputz jarrera heziketa edo posturologia ikastaroa antolatuko du maiatzaren zehar, Ludotekan, Ola kalean.

Gloria Crespo posturapata izango da ikastaroa eskainiko duena eta ordu eta erdiko lau saioetan partaideek teknika hau zer den ezagutuko dute. Klasea praktikoak izango dira. Erlaxazioa eta auto-masajeak landuko dira, bakoitzak berari edo material batzuekin, eta azkenik luzamenduak egingo dira.

Ikastaroa egiteko bi talde osatuko ditu Ttakun elkarteak. Lehengoak astelehenean, maiatzaren 6a, 13a, 20a eta 27an arratsaldeko 19:00etik 20:30era izango ditu saioak eta bigarrenak, aldiz, ostegunetan, maiatzaren 9a, 16a, 23a eta 30a 17:00etatik 18:30era.

Ikastaroaren prezioa 22 eurotako da eta Ttakuneko bazkideek 20 euro ordainduko dituzte. Izena ematea Ttakun Kultur elkartearen, Geltoki 4, egin behar da. Azken eguna maiatzaren 3a izango da.

UDALA

Irudi korporatiboko lanak jaso

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazten du irudi korporatiboaren lehiaketan parte hartu zuten pertsonen beraien lanak jasotzeko aukera izango dutela.

Epea bi astea izango da, apirilaren 15ean hasita, eta Manuel Lekuona kultur-etxeko harreraren eskatu beharko dira lanak.

Gainera, Udalak eskerrak eman nahi dizkie lehiaketan parte hartu zuten guztiei, irabazlea bakarria izan arren irudi oso interesgarriak aurkeztu baitira eta hauek gabe ez zen berdina izango aukeraketa.

GAZTE KLUBA

Benedikara sei hilabete geroago

Euskararen VIII. Maratoia burutu zenetik sei hilabete igaro dira eta hori gogoratzeko, Gazte Klubeko gazteak bihar, apirilaren 20a, Benedikara irteera egingo dute.

Arratsaldeko 16:30ean geratu dira Okendo plazan. Hemendik Euskararen Maratoian bezala, Lasarte-Oriako duen mendi bakarrera egingo dute ibilbidea.

Maratoian Ostadar SKT-ko Mendi sailak jarritako buzoira iristerakoan, denboraren kapsula bat lurperatuko dute. Honetan Euskararen VIII. Maratiko hainbat gauza sartuko dira, kamiseta, pegatinak...

Hau egin eta gero, herrira itzuliko dira. Gazte Klubeko arduradunek azaldu dutenez, 18:00etarako Okendo plazan gotea espero dute.

SOLASKIDE

Pintxo afaria Arrieskalletan

Solaskide egitasmoko lagunek pintxo afaria antolatuko dute maiatzaren 9an, 20:00etatik aurrera, Arrieskalleta elkartearen.

Honetan pintxo afariak gozatzeaz gain, jolas dinamikoak eta hizkuntza erabiltzeko dinamikak egingo dituzte.

Afarian izena emateko azken eguna maiatzaren 6a izango da, astelehena. Afariak 12 euro balio ditu.

Solaskiden parte hartzen duten euskaldun berri eta zahar guztiak daude gonbidatuak afarian parte hartzera.

Lan onari aitortza

■ Enara Fernandez eta Iraitz Etxarri Espainiako txapeldun dira Slalom eta Slalom Gigante-n ■ Udaletxean omenaldi beroa egin zitzaizen lortutako txapelketa guztiengatik

Eskiatzaile gazteari eta bere gida den Iraitz Etxarri omenaldia egin zieten udalean astearte eguerdian. Bertan Pablo Barrio alkateak egin zien harrera, Bea Egizabal ipuin-kontalaria ikusgarria eder bat eskaini zion eta bere gelakideek Unai Muñoa egindako bertso dotorea abestu zioten. Gazteak hunkituta jaso zuen bertan bildutako guztien berotasuna.

Enara Fernandez eta Iraitz Etxarri omenaldia egin zieten udalean eskian lortutako txapelketetako emaitza onak aitortzeko.

Enarak Kirol egokituak Espainiako eski txapelketan partu hartu zuen Cerler-eko pistetan eta Fernandezek Iraitz Etxarri gidaren laguntzaz, Slalom eta Slalom Gigante probetan garaipena lortu zuen.

Denboraldi borobila

Espainiako titulu bikoitz honek Enarak aurten egindako denboraldia borobildu zuen.

Salomean bikain aritu da 11 urteko gaztetxo eta aurten denboraldian hiru txapelketetan izan da podiumeko lehen mailan, Katalunia, Ezcaray eta Madril-en. Aipatzekoa da gainera, Espainiako titulua eskuratzeko jubenil mailan aritu zela bera infantil izanda, hau da, 15-18 urte arteko gaztetxoaren kontra gailendu zuen.

Astearteko omenaldi ekitaldian Pablo Barrio alkateak eski modalitate ezberdinetan

lortutako lehenengo sariak baino garrantzitsuagoa dela "kirol honetan aritzeko erakutsi duzun gogoia eta kementa" adierazi zion gazteari. "Lehenengo izatea beti dago ondo baina hori lortzeko erakutsi duzun gogoia da edozer gainditzeko gai egiten zaituena".

Bea Egizabal ipuin kontalaria ikusgarria eder bat eskaini zion bertso dotorea abestu zioten irakasleen laguntzarekin.

Landaberrin ikasten du Enarak eta bere gelakoak ere bertan egon ziren bi omenaldien senideekin batera. Hauek bere omenalditxoak egin nahi izan zioten klase kideari eta Unai Muñoa bertsoari idatzitako bertsoa abestu zioten irakasleen laguntzarekin.

Txapeldunak

Enarak irribarrea ez zuen ekitaldi guztian galdu eta aitortu zuen bere senideek omenal-



Iraitz Etxarri eta Enara Fernandezi Pablo Barrio alkateak jarri zizkien txapeldunen txapela handia.

diak ezkutuan eta ezusteko modura prestatu nahi zuten arren, berak susmoa izan eta dena esan behar izan ziotela.

Une hunkigarria izan zen Iraitz eta Enararentzat alkateak txapela jarri zirenean.

Iraitzek omenaldiagatik eskerrak eman nahi izan zituen, "ez genuen inolaz espero herrian orokorrean jaso dugun berotasuna, benetan guztiei mila esker" zaletasun bezala hasi ziren biak eskian eta aurten txapelketa guztietan emaitza bikainak pilotatzea ezustea izan den arren "lanaren ondorio izan dira lehenengo postu hauek".

Txalo zaparrada batekin amaitu zen ekitaldia eta

omenduek alkatea eta gelakide guztiekin atera zuten argazkia. Bertaratutako zorionak jaso bitartean Enararengana hurbildu zen bere aita eta gazteak honi jarri zion txapela "zuretzat aita".

Keinuak senideen malkoak eragin zituen.

Enara eta Iraitzek lanean jarraitzeko asmoa azaldu zuten eta datorren denboraldian ere sariak ekartzea espero dutela esan zuten.



Enararen gelakideekin argazkia atera zuten omenduek.

Sutea Viña del Mar tabernan

Ola kalean kokatuta dagoen Viña del Mar tabernako sukaldeak su hartu zuen astelehenean arratsaldeko seiak inguruan. Tabernako jabeetako bat zegoen bertan Chicho Ancizar, eta berak deitu zion suhiltzaileei. Hauek iritsi bitartean freidora batek eragindako sua itzaltzen saiatu zuen.

Viña del Mar tabernako sukaldeak su hartu zuen astelehen arratsaldean. Frijigailu batean piztu zen eta tabernako Chicho Ancizarrek berak deitu zion suhiltzaileei, sua ezin kontrolatu zebilela. Hauek iritsi bitartean hala ere, eskura zituen su-itzaltzaileekin sua kontrolatzen saiatu zen ezinean.

Suhiltzaileak sua itzaltzeko lanetan ari zirela, Chico artatu zuten bertaratzen ambulanzian, "kea arnasteagatik eztulka eta begiak oso



Viña del Mar tabernatik ke asko ateratzen zen eta bizilagunen kezka nabaria izan zen lehenengo momentutan.

gorrituak zituelako, ezer larririk ez" azaldu zuten senideek. Medikuek ondo zegoela ikusi eta behin sua itzalita, behin baino gehiagotan ikusi ahal izan zen tabernako jabea taberna barrura sartu eta suhiltzaileei azalpenak eta argibideak ematen.

Asko izan ziren taberna

inguruan bildu ziren herritar eta bizilagunak eta sutea gertutik jarraitzen izan zen ere Pablo Barrio alkatea. Hau suhiltzaile eta udaltzaingo zein Ertzaintzarekin, hitz egiten aritu zen gertatutakoa argitu nahian.

Taberna gaineko etxebizitzetako bizilagun gehienak

kalean ziren eta hasieran bizilagunak kezkatuta azaldu arren, egoera berehala kontrolatu zela ikusita lasaitasuna nagusitu zen.

Berriro hasi

Sua itzalita suhiltzaileak dena ondo zegoela egiaztatzen aritu ziren gauerarte. Egun

hauetan garbiketa lanetan aritu dira tabernako jabeak "sukaldea da kaltetuena baina aire egokituaren instalazio guztia ere berritu beharko da eta horretarako sabaia bota beharko da" zorionez kalte pertsonalik ez dela izan azpimarratzen dute jabeek. "Chicho kea arnasteagatik medikuntza izan da baina ondo dago, egun horretan ambulanziazko medikuek ospitalera igo nahi izan zuten dena ondo zegoela ziurtatzeko baina burugorria da eta hemen egon nahi izan zuten suhiltzaileekin".

Berriro hasia dela diote Viña del Marrekoek "obra handia egin beharko dugu eta berriro hasia izango da guretzat, ez dakigu noiz ireki ahal izango dugun" hala ere, egun hauetan herritar askoren babesa izan dute eta "hori eskertzekoa da".

Udako egitasmoen aurkezpen alaia

■ Haur eta gaztetxoentzako eskaintza zabala prestatu du Ttakun kultur elkarteak

Udalak lagunduta Ttakunek haur eta gazteentzat antolatzen dituen udako egitasmoen aurkezpena egin zen astelehenean Okendo plazan. Honetan Boris Nogales udaleko Euskara batzorde burua, Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria eta Pili Bermejo eta Jon Pello Artetxe Ttakuneko hezitzaileak hartu zuten hitza. Adin guztiei zuzendutako aisialdi eskaintza zabala iragarri zuten "aurtengo uda ahaztezina izan dadin" herriko txiki eta gaztetxoentzat.

Okendo plazan burutu zuten Udal zein Ttakun kultur elkarteak ordezkariek udako egitasmoen aurkezpen berezia.

Boris Nogales Euskara batzorde buruak, Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakariak, Pili Bermejo eta Jon Pello Artetxe Ttakuneko hezitzaileak parte hartu zuten aurkezpenean eta Okendon zebiltzan haur batzuek, aurreko urteetan ekintzetan parte hartutakoak gehienak, egitasmoei babesa eman zieten argazkirako jarrita.

Udaran euskaraz

Boris Nogales Udaleko ordezkariek azaldu zuenez urte asko dira Udalak Ttakun kultur elkarteak uda sasoirako haur eta gazteentzat prestatzen dituen egitasmoak diruz lagundu eta babesten dituela eta aurten ere hala izango da "garrantzitsua iruditzen zaigulako gure herriko haurrek oporaldian ondo pasatzeko aukera izateaz gain, eskaintza ona eta euskalduna izatea eskura".

Tomas Arrizabalak Ttakuneko aisialdi eskaintza ona egi-

teaz gain, kalitatezkoa eta euskalduna egiteko apustua egiten duela azpimarratu zuen "haurrek ondo pasatzeaz gain euskaraz mintzatzeko aukera izan dezaten".

lazio datuak programa hauen arrakastaren adierazgarri direla azaldu zuen Arrizabalagak "iaz txokoetan 466 haurrek hartu zuten parte eta 49 begirale aritu ziren beraiekin, udalekueetan 147 haur izan ziren eta DBHkoentzako kanpaldian 47 gaztetxo. Hauekin ere guztira 20 begirale". Eta animatu nahi izan zituen herriko haurrak honetan parte hartzera "gure erronka kopuru hauek mantentzea da eta herriko haur eta gazte guztiek honetan parte hartzeko aukera izatea".

Adin bakoitzari zuzenduta

Pili Bermejo Ttakuneko hezitzaileak aurkeztu zituen banan-banan aurtengo udan herriko haurrentzako egiten den eskaintza.

Ohi bezala uztaila eta abuztuan goizetan txokoetan parte hartu ahal izango dute 3 urtetik 12 urte bitarteko haurrek.



Jon Pello Artetxe, Tomas Arrizabalaga, Boris Nogales eta Pili Bermejo asteleheneko aurkezpenean.

Ohiko ordutegia 10:00etatik 13:00ak arte izango da baina lan egiten duten gurasoei erraztasunak emateko asmoz "Goiz txoko deritzon formula erabil dezakete, goizeko 9:00etan sartu ahal izango dira haurrak".

Adinean aurrera irteera gehiago egiten dira eta LH2 eta LH3koek egonalditxo bat egiteko aukera izango dute txokoan baita "etxetik kanpo nola moldatzen diren ikusteko aukera izango dute lau egunetz" eta partehartzea hautazkoa da. Aurten irteera Astigarrara egingo dute.

Horretaz gain, kirol ekin-tzak egingo dira kiroldegian

eta "ez da aspertzeko tarterik izango".

Udalekuei dagokionez, LH5 eta LH6koak Donemiliagara doaz uztailaren 3tik 14ra eta LH3 eta LH4koak uztailaren 16tik 27ra bitartean Mendigorriara. Hauetan parte hartu eta txokoetan jarraitu nahi dutenek ere aukera izango dute hilabete osoa horrela antolatzeko.

Ibiltaria

DBHko gaztetxoek Jon Pello Artetxek azaldu moduan, kanpaldi ibiltaria burutuko dute Lapurdi eta Gipuzkoako kostan zehar ekintza ezberdinak burutuz.

Kasu honetan Kuadrillategin parte hartzen dutenentzat zabaldu da aste honetan izena emateko aukera eta astelehenean aurrera, gainontzekoek egin ahal izango dute.

Aurten gaztetxoek Pasaia-ko gazteekin burutuko dute kanpaldia.

Programa guztietan izena emateko epea zabaldua dago eta Ttakuneko bulegoan egin daiteke, astelehen goizean izan ezik bulegoa itxita egoten da eta, edo Internet bidez. www.ttakun.com webgunean bertan eskuragarri dago ere egitasmoen inguruko informazio guztia.

Landaberri BHI-rekin kiroldegia erabiltzeko hitzarmena



Kirol Zerbitzuetako arduraduna, Udal ordezkariek eta Landaberri BHI-ko zuzendaria erabili ahal izango duten instalazioan.

Lasarte-Oriako Udalak Landaberri BHI-rekin kiroldegia erabiltzeko hitzarmena sinatu zuen asteazkenean. Udal batzar aretoan egin zen sinadura ekitaldian Marijo Murua Landaberri BHIko zuzendaria, Pablo Barrio alkatea, Taxio Arrizabalaga Kirol, Gazteria eta Festak batzordeko burua eta Karlos Altuna Kirol Zerbitzuko arduraduna izan ziren.

Instalazio falta

Udalak jakin arazi duenez, hitzarmen hau Landaberri BHI-ren eskaera baten ondorioa da. Landaberri BHI-k argudiatzen duenez, eraikinean hezkuntza fisikoa garatzeko leku nahikorik ez dago eta duen gutxia jolas-orduetan erabiltzen dute gazteek.

Asteartean sinatutako

hitzarmenaren arabera, Udalak baimena eman dio Landaberri BHI-ri Udal kirol instalazioak erabiltzeko ikasturte honetan zehar eta behin betirako konponketa bat lortu bitartean.

Hitzarmenaren baldintzen artean, Kirol Zerbitzuaren beharrei lehentasuna eman eta Udalari koste ekonomiko baxuena suposatuko dioten instalazioak aukeratu direla dago.

Era berean, instalazioak ordu tarte zehatz batean erabiliko ahal duela eta saioak garatzeko kirol materialaren hornikuntza ikastetxearen esku dagoela ere azpimarratzen da.

Eta honekin lotuta, Kirol Zerbitzuak materiala gordetzeko biltegi konpartitua utziko dio.

LABURRAK.-

Telleriaren Estai behorra garaile Zumaian

Zumaia San Telmo jaietan antolatzen den zaldi lasterketan Xanti Telleriaren Estai behorra berriro ere irabazle izan zen eta Kalimutxo zaldia hirugarren izan zen. Estai Jose Manuel Martinek gidatu zuen eta Kalimutxo, berriz, Xanti Telleria berak.

Aurreko igandean, Itzurungo hondartzan, hogezi zaldi eta behor izan ziren lehian. Lau taldeetan banatuta sailkapen saioak egin zituzten eta hauetako bi onenak finalean izan ziren.

Finalean Zumaia Eneko Urbiet eta "Artia" lasterketaren buruan egongo zirela zirudien arren, Jose Manuel Martin eta Estai bihurgune batean aurreratu eta gainontzeko bost itzuliak aurrean egin zituzten arazorik gabe. Hirugarren urtea da Telleriaren behor lasterketa honetan garaile direla.

Kontsolazioko finalean ere, herritar bat izan zen garaile, Ramiro Lopezen "Reconquista".

Judoka gazteak ederki Gasteizen

LOKEko kadete eta infantilak lehengo larunbatean, Gasteizen izan ziren Shiai elkarteak antolatzen duen San Viator nazioarteko txapelketan lehiatzen. Honetan emaitza paregabeak lortu zituzten.

Asier Zubizarreta irabazle izan zen kadete mailan. Hirugarren izan ziren bakoitza bere pisuan, Haritz Urdangarin, Iñigo Ruiz de Azua, Fermin Balda eta Ion Arroyo.

Infantil mailan, berriz, bigarren izan ziren Jorge Revuelta eta Talib Vergara hirugarren izan zen.



FUTBOLA.-

Ostadarreko neskek ederki

Maiatzaren 4an, kopa txapelketa hasiko dute

Ostadar SKT-ko emakumeen taldeak lehen fasea amaitu berri du. Ederki ibili dira denboraldi osoan lehen postuan. Azken partidatan behaldia txikia izan dute eta larunbateko berdinketaren ostean, sailkapeneko laugarren postuan geratu dira.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako emakumeen kirola indartsu dago. Ostadarreko SKT-ko emakumeen senior taldeak laugarren postuan amaitu du lehengo fasea. Maiatzaren 4an, kopa txapelketa hasiko dute Urolaren aurka.

Javi Solchaga entrenatzaileak adierazi digunez, "fasea oso ondo joan da. Azkenean laugarrenak geratu gara, baina ez da gure posizio erreala."

Izan ere, Ostadar SKT-ko



Ostadar SKT-ko neskek nagusi izan ziren lehen zatian. Azkenean bina berdindu zuten.

neskek denboraldia ederra egin dute. "Orain dela hilabete eta erdi lehenengoak gindozaz. Bigarrenaren aurka, Elgoibar, partida garrantzitsua genuen orduan, eta galdu genuen. Hortxe "bukatu zen liga," aipatu digu.

Berdinketa

Lehengo larunbatean, berriro ere, sailkapeneko bigarren postura igotzeko aukerak zituen Ostadarrek.

Michelin kirol gunean jokatu zen partidaren Lasarte-

Oriako taldeak ederki borrokatu zuen Allerruren aurka.

"Lehenengo zatian hobeak izan ginen, eta 2-0 iritsi ginen atsedendira. Bigarrenaren, berriz, indarrak orekatu ziren eta bi gol sartu zizkiguten korner eta falta baten bidez," azaldu du entrenatzaileak.

Azkenean, bina berdindu zuten eta laugarren postuan amaitu. "Hala ere, oso pozik gaude taldearekin, neskek gogoakin etortzen dira entrenatzeri eta hori garrantzitsua da".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 20
Michelin, 10:30ean
 Ostadar-Sporting de Herrera
Infantil Txiki, kopa
Michelin, 12:00etan
 Ostadar-Trintxerpe
I. Kadetea, kopa
Michelin, 13:30ean
 Ostadar-Trintxerpe
I. Infantilak, kopa
Michelin, 15:30ean
 Ostadar-Euskalduna
I. Erregionala, igoera
Ipintza, Bergara, 15:30ean
 Bergara-Ostadar *I. Jubenila, kopa*
Matigoxotegi, Donostia, 15:30ean
 Internacional-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa
Michelin, 17:15ean
 Texas Lasartearra-Danena
I. Erregionala, kopa

Igandea 21

Berio, Donostia, 09:00etan
 Antigua Luberrri-Texas Lasartearra
I. Kadetea, kopa
Michelin, 10:00etan
 Ostadar-Tolosa
Jubenilen Ohorezko maila
Trintxer, Trintxerpe, 10:00etan
 Trintxerpe-Ostadar *Alebina, kopa*
Michelin, 11:45ean
 Ostadar-Aretxabaleta
Erregional Ohorezko maila
Gobela, Getxo, 18:00etan
 Romo-Ostadar
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko Maila

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 20
HERRIKO TXAPELKETA-KONTOLAZIOA
 Kirol gunea, areto-futboleko kantxa
11:30ean, Ori kristaldegia-Illargi taberna
12:30ean, Trumoi-Ana eta Soi ileapaindegia
13:30ean, Balerdi Harategia-Albaniñeria Vertical

Kiroldegia, 17:00etan
 Aldaz H.K. -Mallabia
Nazional B maila
Hernaniko kiroldegia, 18:30ean
 Horbel taberna-ISU Leihoak
Gipuzkoako Liga

Igandea 21

HERRIKO TXAPELKETA-FINAL LAURDENAK
 Kiroldegia
09:15ean, Izkiña-ISU Leihoak
11:30ean, Izarra-El Punto

SASKIBALOIA

Larunbata 20
Laskorain ikastola, Tolosa, 12:00etan
 Laskorain-Landaberri 06
Mini neskek, Gipuzkoako txapelketarako sailkapena

IGERIKETA

Larunbata 20
Tolosa, 10:00etan
 Burunzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuek GIF I. Saria izango dute.

SQUASHA

Ostirala 19-Osteguna 25
HERRIKO TXAPELKETA
 Kiroldegia, 18:30etatik aurrera

GIMNASTIKA

Larunbata 20
 Ipuru kiroldegia, Eibar, 10:00etan
 LOKEko gimnasta gazteek
 Eskolarteko a mial eta Amateur mailako bigarren saioa dute.

PILOTA

Larunbata 20
Kirol gune pilotalekuan, 16:00etan
 Intza-Hernani 3
Udaberriko Saria, Errendimendua, Infantilak
Kirol gune pilotalekuan, 16:00etan
 Intza-Antigua
Udaberriko Saria, 4 t'erd, nagusiak
Kirol gune pilotalekuan, 16:00etan
 Intza-Real Sociedad
Udaberriko Saria, 4 t'erd, nagusiak

JUDO

Larunbata 20
Monzalbarba, Zaragoza, 17:00etan
 LOKEko junior eta senior mailako judoketarako Aragoiko kopan parte hartuko dute.

Igandea 21

Errenteria, 10:00etan
 LOKEko Jorge Revuelta infantilak
 Euskadiko rankinean parte hartuko

du, Espainiako txapelketarako sailkapen saioa da.
Errenteria, 11:30ean
 LOKEko Oscar Garrido eta Fermin Balda kadeteek Euskadiko Txapelketan parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Larunbata 20
Mojategi, Arrasate, 17:00etan
 LOKEko atleta gazteek eta herritarrek Kadete, Jubenil, Junior eta Beterano mailako Gipuzkoako txapelketa lehen jardunaldia dute.

Igandea 21

Urniet, 09:30ean
 Herriko hainbat atleta II. Urnietako mendi lasterketan izango dira.
Ordizia, 10:30ean
 LOKEko atleta infantil mailako gazteek eskolarteko Gipuzkoako txapelketa dute
Durango, 10:30ean
 Herriko hainbat atleta I. Durangoko Herri krossean izango dira.
Gasteiz, 10:30ean
 Herriko hainbat atletek XXVIII. Estibalizera igoera parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Larunbata 20
Hernani, 10:00etan
 Hernani-Beltzak Ostadar Zaratz *Infantil federatua*

Lekaroz, 11:30ean
 Baztan-Beltzak Ostadar Gure Etxea *Euskal Liga, Kadete maila*

Igandea 21

Michelin, 09:00etan
 Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako eskolarteko infantilak, alebin eta benjaminen entrenamendua dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 20
Zegama, 16:00etan
 Bazpi Txirrindularitza eskolako jubenilak XXIX Elakartu nahi saria proban izango dira.
Aretxabaleta, 16:30etan
 Bazpi Txirrindularitza eskolako infantilak Aretxabaletako Saria proban izango dira.

Igandea 21

Biyak Bat elkartea, 08:30ean
 Ostadar SKT-ko zikloturistek Errexil aldera egingo dute irteera.
Eibar, 10:30ean
 Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek LIII Otxoa Oroimenezkoan parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 21
Altza, 10:00etan eta 16:30ean
 Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak Gipuzkoako kopako saioa jokatu du.

Agenda

Gaur, ostirala 19, 22:30ean, Jalgi Kafe-antzokia



Harremanak aztergai

Ganorax taldearen "Zeeze, o ze!" lana ikusteko aukera izango da. Itxarongela bat. Bertan bilduko diren lau lagunek badute elkarren artean loturaren bat. Mari Karmenek Kattalinen zerbait nahi du, Kattalinek Andonirena, Andonik Nepomucenarena eta honek Mari Karmenen zerbait. Harremanei buruz hitz egiten digute pertsonaia hauek. Sortzen diren dependentsiez, aldatzen doazen sentimenduez, galeren beldurrez, laguntasunaz eta bakardadeaz. Kultur Errotako ekintza da. Doan.

elkarteko sortzaileak ABIDEGIN proiektuari buruz hitz egingo du. Ainara Elizetxea herritarren bizipena ere entzun ahalko da. Gaztelaniaz.

Astearte 23, 19:30ean

"Acompañando en el final de la vida" hitzaldia eskainiko du Izaskun Andonegik.

Asteazkena 24, 19:30ean

"Cómo hablar y acompañar a los niños y adolescentes en el proceso del morir" hitzaldia izango da entzungai. Hizlaria Mila Arce haurren erizain psikiatra.

Liburuaren eguna

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 23, 17:00etan

EPA-HHI-ko ikasleek haien lanen irakurketa egingo dute.

Astearte 23, 18:00etan

Ixabel Millet ipuin kontalaria izango da haur liburutegian.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Apirila bukaera arte

Mundu bat GKE eta Euskal Herriko nekazarien elkartasuna elkarteak antolatuta, "Emakume nekazariak. Eskubide eta errealitateak" argazki erakusketa ikusgai izango da.

Astigarraga

Musika

J. BARANDIARAN PLAZA

Larunbata 20, 19:00etan

Lasarte-Oriako "Oreindik" taldeak Musika Plazara ekimenean parte hartuko du. Doan.

Lasarte-Oria

Musika astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 19, 20:30ean

Ruper Ordorika abeslariaren kontzertua izango da. Sarrera, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,25 euro.



Larunbata 20, 19:30ean

Pasaia Musikaleko Octopus eta White Storm konboen kontzertua entzuteko aukera izango da. Haien erreperorioak estilo barietate handia dauka. Doan.

Igandea 21, 17:00etan

ATEloka teatro taldeak "Biolin magikoa" haurrentzako antzerki berezia eskainiko du. Honetan zuzeneko biolina entzuteko aukera izango da. 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Sarrera, internet bidez, 3,24 euro, leihatilan, 3,70 euro. Euskaraz

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Igandea 21, 12:30ean

Ana Belen Garcia organo jolearen kon-

zertuaz gozatzeko aukera izango da. Ama Brigitaren komentuko organoa, 1915. urtean egindakoa joko du.

Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 20, 00:00etan

Esther Uriaren bakarrizketa entzungai. Gaztelaniaz. Doan

Balioetan Hezi

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 22, 19:30ean

Izaskun Andonegi erizain eta Bidegin

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da apirilaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

Herritarren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, apirilaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Udan begirale izateko

Udako Txokoak egitasmoan edo udaleku itxietan, uztaile eta abuztuan, begirale izan nahi duten gazteek orain dute aukera izena emateko.

Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea dira.

Honetarako zenbait bide dituzte interesatuek: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. Azken eguna maiatzaren 8a da.

Alboka Abesbatzaren Batzar Orokorra

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, apirilaren 22an astelehena, urteroko batzar orokorra egingo duela Arantzazuko Amabirjinarren eliza azpiko lokalean.

Lehenengo deialdia 19:30etan izango da eta bigarrena 20:00etan. Bazkide eta abeslari erregutuzen zaie puntual iristea.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordulari, bost betaurreko graduatu, patinete bat, bi mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro

Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua guttuko dutenentzat atek zabalik ditzuzela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Esquitza

Ernairen aurkezpena

Zukgua prozesua amaitu zen eta Lizarran aurkeztu ziren prozesuan eztabai-datutakoak nahiz ateratako ondorioak. Lizarran jaiotzen Ernai; Euskal Herriko gazte erakunde feminista, sozialista eta independentista.

Lasarte-Orian ere ernai gaude, Ernai gara. Aurrera begirako herri mailako borrokei hasiera emate aldera, "Buru-jabetzen" (edo "Buru-gabetzen") izeneko aurkezpena prestatu dugu. Honek hiru egun eta egitarau zabal bezain interesgarria barne-hartzen ditu. Apirilaren 26an, 27an eta maiatzaren 1ean burutuko den aurkezpenak burujabetzaren gaia du ardatz, burujabetza hiru mailatan: burujabetza nazionala, pertsonala eta sozio-ekonomikoa. Burujabetza horretarantzko bidean abiapuntu izango dira egun hauek eta "Auzolan" taldearen bisita, mural baten margoak, aurkezpen bazkaria eta beste zenbait dinamika antolatuta ditugu, ohiko aurkezpen festetatik harago.

Txintxarri bertan emango dugu egitarau osoaren berri.

Beraz, ez pentsatu bi aldiz; burujabetu, burujabetu eta parte hartu!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo esquitza argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oriako Ernai

I. Musika Astea martxan da

Gaur gauean Ruper Ordorikaren bakarkako kontzertua izango da

Saxofoia eta tronpeta I. Musika Asteako lehen bi egunetako protagonistak. Udaleko kultura sailak antolatutako ekimen honetan musika estilo eta instrumentu ezberdinak entzuteko aukera dago. Gaur Ruper Ordorikaren txanda da eta asteburuan Pasaia Musikala-ko taldeak, organo kontzertu eta haurrentzako "Biolin magikoa" antzerkia izango dira.

Nerea EIZAGIRRE

Musikaren Saxofoi taldearen doinuak eman zioten hasiera asteazkenean Lasarte-Oriako I. Musika Asteari.

Musikaren historian barrena bidai txikia egin zuen Saxofoi Ensenbleak. Bach, Tchaikovsky, Rachmaninov edo Leonard Bernstein musikagile ezagunen doinuak entzun zituzten Manuel Lekuonara hurbildu ziren herritarrek.

Atzo berriz, ezin izan zen Ainhoa Merceroaren ahotsa trebetasuna entzun I. Musika Aste honetan.

Ainhoa Mercero abeslariaren gaixotasuna zela eta, Duo Soupirek, Mercero Alberto Saez pianistaren laguntzaz eskaini behar zuen emanaldia bertan behera geratu zen.

Ondorioz, Chet Baker tronpetista izan zen protagonista. Ostegun zinea atalaren barruan, bere bizitza erakusten zuen dokumental saritua ikusi zen Manuel Lekuonan.

Gaur egungo musika

Gaur eta bihar berriz, egungo musika entzuteko aukera izango da.

Ruper Ordorikak kontzertu berezia eskainiko du gaur 20:30ean hasita. Bakarka



Musikeneko Saxofoi taldeak musikari handien doinu ezagunak eskaini zituen eta obra batzuetan pianoaren laguntza ere izan zuten.

kontzertu gutxi batzuk egingo ditu eta Lasarte-Oriako izango da horietako bat. Bere ibilbidea errepasatuko du Oñatiko abeslariak bere gitarren laguntzarekin.

Bihar berriz, Pasaia Musikaleko bi konbo talde, hau da, "Octopus" eta "White Storm" taldeek joko dute. Hauek estilo ezberdinetako doinuak eskainiko dituzte.

Amaiera berezia

Musika Asteko azken egunean, igandean berriz, bi

ekintza berezi izango dira, Ana Belen Garcia organo jolearen kontzertua eta "Biolin Magikoa" haurrentzako antzerki musikala.

Ama Brigitarren komentuan, 12:30ean izango da lehen hitzordua.

Honetan Ana Belen Garcia Ama Brigitarren organoa joko du. Ia 100 urte dituen organoa da eta, 1991 urteaz geroztik, bere doinua ez da kontzertu batean entzuten, bai ordea elizkizunetan.

XVII. mendetik hasi eta

XX. mendera arteko hainbat lan joko ditu Italia, Alemania, Frantzia eta Espainiakoak.

Arratsaldean, berriz, 17:00etatik aurrera, haurrak musikaren historian murgiltzeko antzerki berezia izango da Manuel Lekuona kultur-etxean, Aitor Fernandez, Tomas Ruti eta Jon Garagarza lasarteoriatarren "Biolin Magikoa".

Historiako musikari klasi-koak eguneratu eta biolina zuzenean entzuteko aukera izango da.

garrara publikoa

Gipuzkoa



Persona guztien mesederako canPa bateratuak.



Garrara-aldaketak baldintza onetan.



Erabileraren araberako deskontuak.



Talde bereziei zuzendutako hobariak.

Mugirekin, zu irabazle

Gipuzkoako garrara publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.



Transporte Garaia
Gipuzkoako Erakundeak

 943 000 117
www.mugipuzkoa.com